



XI. edizioa ERROMATAR JAIALDIA DIES OIASSONIS

Dies Oiassonis Jaialdia, Oiassora itzultzen da, eta Isis jainkosari eskainitako prozesioa, merkatua edo zirku erromatarra bezalako ohiko jarduerarik ospatu ezin den arren, jainkoek jaialdia egungo egoerara modu seguruan egokitzea eta ospatzea ahalbidetu digute asteburuan zehar programatutako antzerki klasiko greko-latindar ikuskizunen bidez. Gainera Emakumeei eta gastronomiari buruzko erakusketa inauguratuko dugu, eta iraganera bidaiatuko dugu Felix Mansoren eta Iñigo Lavadoren jateetxeetan antolatutako afariekin. Bertan, emakumeak, gure gastronomiako eta historiako adituak, izango dira solasaldietako protagonistak.

DIES OIASSONIS JAIALDIA ANTZERKI ERAKUSTALDIA

UZTAILAK 9 -ostirala

Bakarrizketak: Oiassoko emakumeak

4 aktorek Oiassoko 4 emakume antzezten dituzte:

Olatz Beobide, Aia Kruse, Naiara Arnedo eta Patxi Pérez, Naroa Zuazuaren musikarekin, Ana Pérezek eta Aizpea Goenagak zuzendurik. Eszenografia Manó Martinen esku.

- Lekua: Junkal plazako antzezlekua
- Ordua: 20:00
- Iraupena: 60´

Doako sarrera. Gonbidapenak 50 minutu lehenago jasoko dira Junkal plazako antzerkiko sarreran. Helduak

UZTAILAK **10** -larunbata

Erraldoi erromatarren aurkezpena

- o Lekua: Museo ondoan
- o Ordua: 11:30etatik 13:30etara eta 17:00etatik 18:30etara

La Comedia de la Cestita

Ikuskizuna joan den Méridako jaialdian estreinatu zen, eta arrakasta handia izan zuen publiko eta kritikaren aldetik.

Plautoren komediaren bertsio librea da, **Pepe Quereoren** zuzendaritzapean eta **Pilar G. Almansaren** bertsioarekin. **Mariola Fuentes, Alex O 'Dogherty, María Esteve, Itziar Castro, Jimmy Barnatán, Falín Galán, Rosa Meras** eta **Juanfra Juárez** aktoreek antzeztu zuten.

- o Lekua: Junkal platzako antzezlekua
- o Ordua: 22:00
- o Iraupena: 90´

Sarrera orokorra 12 € eta murriztua langabetuentzako 8 €. Helduak.

UZTAILAK **11** -igandea

Egile klasikoen irakurketa dramatizatua

Antzezleak: Ana Pérez, Patxi Pérez, Isidoro Fernández eta Aizpea Goenaga. Musika Naroa Zuazua (txirula) y Ane Encabo (gitarra).

- o Lekua: Junkal plazako antzezlekua
- o Ordua: 13:00
- o Iraupena: 45´

Doako sarrera. Gonbidapenak 50 minutu lehenago jasoko dira Junkal plazako antzerkiko sarreran. Helduak

ABANGOARDIAKO GASTRONOMIA ETA HISTORIA AFARIAK

Emakumeak eta Euskal Gastronomia erakusketako jarduerak

Aukera paregabea Irungo gastronomiaz goatzeko, historiari errepasoa egiteko eta atzo eta gaur gure gastronomiaren atzean egon diren emakumeei balioa emateko.

UZTAILAK 8 -osteguna

Restaurante Felix Manso Ibarla jatexea

Ameriketatik etorritako produktuei buruzko afari-solasaldia

- o Ordua: 20:00
- o prezioa: 40,00 €
- o Erreserbak: ☎ 943 841 964

Afaria Felix Manso Ibarla jatetxean, Ameriketatik ekarritako produktuekin eta erakusketako komisario eta Basque Culinary Centerreko irakasle den Luisa López Telleriak moderatutako solasaldiarekin, eta Sonia García Olazabal, Felix Manso jatetxeko aretoko arduraduna eta Chocolates Irungo Aitziber Falque partaidetzarekin. Hiru emakume gastronomiarekin lotuta.

UZTAILAK 9 -ostirala

Iñigo Lavado jatetxea (Ficoba)

Erromatar gastronomiari buruzko afari-solasaldia

- o Ordua: 21:30
- o Prezioa: 35,00 €
- o Erreserbak: ☎ 943 639 639
(Utzi mezua zure izen eta telefono zenbakiarekin)

Afaria Iñigo Lavadoren jatetxean, erromatarrek ekarritako errezetekin. Luisa López Telleria erakusketako komisario eta Basque Culinary Centerreko irakasleak moderatutako afari-solasaldia. Mertxe Urteaga arkeologoa, beste aurkikuntza handi batzuen artean, Oiassoko portuko indusketen arduraduna den partaidetzarekin.

EMAKUMEAK ETA EUSKAL GASTRONOMIA: ERROMATARREN GARAITIK GAUR EGUNGO ABANGOARDIARAINO

Gastronomiari buruzko erakusketak arreta berezia jarriko die emakumeei, eta marko honetan egingo dira uztailaren 8an eta 9an erromatar sukaldaritzarekin eta emakumeek gidatutako abangoardiarekin lotutako topaketak.

Interesa duten guztiei irekitako bi afari hauetan, uztailaren 8an eta 9an, gure historia gastronomikoko platerrik garrantzitsuenak bilduko ditugu, abangoardiako sukaldaritzarekin bat eginda, bertako gastronomiarekin lotutako emakumeen eskutik.

Erakusketari dagokionez, ibilbide bat egingo da, baskoietatik, erromatarren garaitik, gure sukaldaritzan hain eragin handia izan zuena, Irungo gaur egungo abangoardiaino, mendeetan zehar izandako berezitasunak eta aurrerapenak azalduz eta emakumeek euskal gastronomian izan zuten papera hausnartuz.

Erromatarren sukaldatzeko eta elikatzeko moduak modu sotilean konkistatu gintuen, baina betiko, eta horixe erakutsi nahi dugu K.a. 179. urteko sukaldeetan hasten den erakusketan honetan, baskoiak haien presentzia sentitzen hasten direnean, eta gaur egun abangoardiako jatetxeetako mahaietaraino iristen denean.

Gastronomiaren alorrean, non emakumeak ziren protagonista, ez dago narraziorik. Garai historiko bakoitzak edo aurkikuntza historiko bakoitzak ekarritako ekarpenez hitz egiten da, baina inoiz ez dago izenik, edo emakumeen lana aitortzen.

Eta emakume, langile isil, sukaldari anonimo baina ezinbestekoen bidez kontaktzen dugu.

EMAKUMEEN PAPER A IBILBIDE HONETAN

- 1- Emakumea euskal gizartean
- 2- Erromatarrek irakatsi zigutena (K.a. I. mendea - K.o. V. mendea)
- 3- Arraina purutasunaren sinbolo gisa Erdi Aroan (V-XV. mendeak)
- 4- Ameriketatik heldu zitzaizkigun produktuak. (XV. mendea)
- 5- Espezieak eta itsasgizonak (XVI. mendea)
- 6- Caracasko Konpainia eta txokolatea (XVIII. mendea)
- 7- Olatu-bainuak (XIX. mendea)
- 8- Euskal sukaldaritza tradizionala.
- 9- Euskal sukaldaritza berria (XX. mendea)
- 10- Bidasoako gaur egungo abangoardia. (XXI. mendea) Afari-solasaldia.